



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1995eko uztailaren 14a. 18. zenbakia. Doan banatzen da.



uztailak 1995



ONDO PASA SANTIO JAIK

SAHATSA
BELARDENDA ETA DIETETIKA
ZENTRUA. KONTSULTA NATURISTA

Txermin kalea, 16 - ☎ 69 28 83 - BILLABONA


Festa horietarako zure erostetarak...

BENITO
HARATEGIA - URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 691149
ARROA KALEA, 4 ☎ 691350

B I L L A B O N A

**OKINDEGI eta GOZATEGI
OGI·GOXO**



- TARTAK
- IJITO BESOAK
- PASTELAK
- TEILAK - ZIGARRILOAK
- HOJALDREAK
- MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26
Tel. 69 32 94
BILLABONA

**UZ
TARI
GI**

EDARITEGIA
BILLABONA

LOATZO ASESORIA - ASESORIA



LOATZO

ZURE
ETORKIZUNA
BIZI
ASEGURUA

JOXERRA GARMENDIA MUJIKA
IBON GARMENDIA UGARTE

Antxin kalea, 3 behe - Tel. 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA

**KAFETEGIA
TXOKOLATEGIA**



Kale Nagusia, 12 - Tel. 69 24 86
BILLABONA

Aurkibidea

1. AURKIBIDEA. ZE BERRI?

Bixente Huizi kirolaria eta kazetaria.

2. INKESTA.

Eta zu, eguzkia hartzeko babesten al zara?

3. LARRAUL.

Haurrentzako jolastoki berria.

4-5. ANDOAIN.

La Salle-Berrozperen 50. urteurrena.
Laborde artxibo fondoa.

6. ASTEASU.

Badatoz Santa Mañak!

7. BILLABONA-AMASA.

Aurtengo konpartsa: antzinako ezkontza.

8. ZIZURKIL.

Abeletxe aterpe berritzailea martxan da.

9-10. ERREPORTAIA.

Alkate berriekin solasean.

11. BASERRIA.

Asteasuko ganadu feria-erakusketa

12-13. KULTURA.

VII. Rikardo Arregi Kazetaritza sariak.
Jone Larrañaga andoaindarrak bi sari jaso ditu.

14. LEHIAKETA.SUKALDE TXOKOAN.

15. HEMEROTEKA.

16. AGENDA.

Ze berri?

Bixente Huizi kirolaria eta kazetaria



ANDOAINDARRA; 71 URTE;
ZUMEATARRA ATLETISMO TAL-
DEKO KIDEA

- **Zein txapelketan hartu duzu parte azkenekoz?**

- Huescan Espainiako txapelketan hartu dut parte. Urrezko domina irabazi dut 1.500 metro oztopo lasterketan, al-
tuera-jauzian berriz, zilarrezkoa.

- **Noiz eta nola basi zinen atletismo egiten?**

- 42 urterekin. Orduan Euskalduna futbol taldeko entrenatzailea nintzen. Neguan botz handiak egiten zituen eta entrenamenduak zeharo lokaztuta amaitu ondoren dutxa hotzean sartzeko itxaron beharra zegoen. Nik denbora buira futbol zelaian korrika ematen nuen. Geroztik basi naiz txapelketan parte hartzen. Hilabete batzuk barru Estatu Batuetara joango naiz Bufalora munduko txapelketan parte hartzera.

- **Zure adineko jende askok egiten al du atletismoa?**

- Espainian beteranoen mailan 12.000 lizentzia daude.

- **Eta entrenamenduak?**

- Orain arte egunero entrenatzen nuen Anoetan; orain bi eginez behin.

- **Beste kirolen aldean atletismoaren aldekoa zara zu?**

- Kiroliek osasungarriena iruditzen zait. Gainera, jende guztiak praktika dezake arlo batean ez bada, bestean. Bai La Sallen bai Ikastolan baurrekin kirola egiten nuenean horretaz obartarazten saiatzen nintzen neska-mutilei.

- **Kazetari ere izan zara?**

- Unidad-en, La Voz de España, La Voz de Euskadin eta Deian idatzi dut. Orain dela bi urte arte azkenengo horretan. Radio San Sebastianen ere garai batean herriko kirol kronikak egiten nituen.

- **Zer da ofizio horretan inoiz abaztu behar ez dena?**

- Esaerak dioen bezala "Santo Tomas, ver y creer", horixe egin behar du kazetariak. Begiz ikusitakoa jaso eta informazioa alderatu.

- **Garaiko pasadizuren bat izango duzu**

- Behin hilurren zegoen berritar baten biletaren berri eman nuen, artean bizirik zegoela. Eskerrak handik bi egunetara hil zen!

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiarzabal **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia.
Banaketa arduraduna: Iñosken Mujika.
Administratzaile-eragilea: Kepa Sarasola.
Inprimategia: Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati).
Filmaketa: VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.



M. LARRAMENDI



Aldizkari honek Eusko Jaurkitzako Kultura sailaren laguntza jasotzen du.




Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jasotzen du.

Eta zu, eguzkia hartzeko babesten al zara?

Eguzkia berotzen hasi da dagoeneko, tarteka eta ezustean, oraindik euri zaparrada galantak botatzen baditu ere. Gehientsuenak kolore pixka bat hartuta daude uda sasoi honetan, eta beltz-beltz eginda dagoenik ere badago. Jakina da ordea, -eta ez da-

kienak jakin beharko luke- eguzkia edonola, inongo babesik gabe hartzea arriskutsua dela. Azaleko gaitz ugari eragin ditzakete eguzki izpiek, axolagabe izanez gero. Eta gure bizilagunak, babesten al dira beraiek eguzkia hartzeko? Horra hor galdera.



Egoitz Aburuza,
ikaslea. Aduna.

Bai. Crema ematen dut beti, askotan erre izan naiz eta ematea komeni da. Orain dela gutxi Iratxera joan ginen eta erre-erreta etorri ginen. Buf..., crema? Baita...



Mila Ipintza,
etxekoandrea. Zizurkil.

Lehenengo alditan zerbait ematen dut baina kolore pixka bat hartutakoan ez dut ezer ematen. Azaleko gaisotasunek ez naute kezkatzen. Hurrei ematen diet.



Juan Donoso,
jubilatua. Andoain.

Ez, ez dut ezer jartzen. Oso eguzki gutxi hartzen dut, gainera. Hondartzara ez gara joaten. Hartzekotan bara-tzan. Baina inongo babesik gabe, era naturalean.



Jose Angel Bejarano,
ikaslea. Asteasu.

Ez dut ezer egiten. Hondartzara oso gutxi joaten naiz eta gutxi egoten naiz. Ez dit erretzeko denborarik ematen. Gehiago egongo banintz zerbait emango nukeela pentsatzen dut.




Leire Lizarralde,
ikaslea. Billabona.

Bai, beti ematen dut zerbait. Eguzki izpiak oso arriskutsuak dira eta osasunak kezkatzen nau. Hondartzara joan eta crema emanez gero ez dago arazorik, beraz, crema eman eta kitto.



Kristina Hernandez,
etxekoandrea. Andoain.

Bai, beti ematen dut crema, babes handikoa, gainera. Honez gero joan naiz egun batzuetan hondartzara. Eguzkiak berotzen hasi orduko joaten naiz. Beti jartzen dut crema; oso zuria naiz.



GOSARIAK - APERITIBOAK
BILARRA

GIRO EDERRA!!

KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN




KARROZERIAK
LAGUNAK^S

TXAPA ETA PINTURA

EGA ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIAKOAK
HOZKAILUAK

SORABILA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN



Haurrentzat leku egokia

Jolastoki aproposa

Frontoia eta plaza ez ziren nahikoak, eta haurrak gustora ibiltzeko leku baten beharra zegoen Larraulen. Udaletxe ondoan dagoen zelaira begiratuz gero, berritasun asko nabari dira: pin-ponean jokatzeko mahai bat, kolunpioak, txirrista eta haurrek hain gustoko dituzten hainbat tresna.

Haurren topagune bilakatu da azken aldi honetan zelaia. Jolasteko hainbat tresna eta korrika, ezkutaketan, jolasean ibiltzeko zelai zabala dute haurrek Larraulen. Gurasoak ere gustora. Jakina, euren seme-alabak hor dabilta denak batera eta auto batek harrapatzeko inongo beldurrik gabe.

Larraulgo Udalak haurrei eskaintza berri bat egin behar zitzaie eta, orain jolastoki bihurtu den lur saila erosi zuen. Lanean jarri ziren berehala eta uda parte honetarako dena prest geratu da. Oraindik egongo dira berrikuntza gehiago, eserleku batzuk eta beste zenbait gailu

jartzea falta baita. Eremua zabalduko dute beraz, uda edota udazken honetarako.

Hala ere, dudarik gabe, gune honetako protagonistak bakarrik uztea batzuetan hainbeste beldur eragiten duten seme-alabak dira. Gustora daude, euren herrian bilera leku bat dutelako. Haurren giroan daude helduen begiradatik kanpo, beren saltzan. Herriko parkean denak batera dabilta, eta gainera, kanpotik egun-

pasa datozen familiek lasai uzten dituzte beren seme-alabak. Bertan, leku ezberdinetako haurrak nahasten dira. Batak bestearen jolasen berri du, lagun berriak egiteko lekua da, eta ez dago gaizki etxetik hain gertu eta hainbeste jende ezagutzeko aukera izatea. Gogoratzen ditugun umetako oroitzapenen gordelekua izango da, ezbairik gabe, hemendik urte batzuetara hazita egongo diren larrauldarrentzat.

Larrauli




**ALOTZ
IZOZKINAK**

KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN

**Joxe Mari
ITURRALDE**

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81


**Ikatza
Taberna**

GIRORIK JATORRENA !!

Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89 ANDOAIN

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa
fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



Laborde artxibo fondoa

E. Truchuelo: "Lantegiak oso era positiboan eragin du herrian"

Joan den urtearen amaieran "Laborde S.A.L" lantegiak urteetan bildutako dokumentazioa eman zion Udalari. Leku falta izan zen arrazoia. Oraindik zehazteke dago zenbaterainoko balioa daukan dokumentazioak. Dena den, Udal artxibategian adierazi digutenez, ezuste atsegina hartu dute bitxikeriren batzuk ere aurkitu dituztenean.



AFB ARGAZKIAK ANDOAIN

Lanbide Eskolako lehen promozioa

Jasotako idatzien artean asko eta asko lantegi barruko administrazio agiriak izango direla pentsatzen dute, balio handirik gabekoak. Hala ere, ezustea eragin duten hainbat gauza ere aurkitu dute. Argazkiak lehenengo eta behin: lantegi barruko argazkiak, baita langileenak ere, eta batez ere San Martin jaietakoak. Diska batzuk ere topatu dituzte, lantegian bertan eratu zuten Labher abesbatzaren diskak, hain zuzen ere. Filme batzuk, eta proiektzio-tresna zahar bat. Filmeetan instalazioak ikusten dira gehienbat, eta ziur aski bezeroei lantegia aurkezteko erabiliko zituzten. Eta azkenik, liburuen artean garaiko punta-puntako liburu tekniko alemaniarak.

Aurkitutako materialak berak egiaztatzen du Laborde anaiek sortutako lantegia aitzindari izan zela, eta bere alorrean punta-puntakoa. Horren lekuko eman digu Emilio Truchuelok, urteetan lantegian publikitate sailaren arduradunak.

Tolosako anaiak

Labordetarrak jatorri tolosarra zuten. 1926. urtean eratu zuten "Laborde Hnos. S.A". Brokak egiten zi-

tuzten lehenengo eta 15 langilerekin hasi ziren lanean. Bazkardoko "Gureola" pabiloian ezarri ziren lehenik, eta 1932. urtean egun dau den lekura joan ziren. Gerra Zibilaren garaian militarizatu egin zuten lantegia, eta 16 langile izatetik 236 izatera igaro ziren 1939. urtean: 111 gizonezko eta 125 emakumezko.

1939. urtean egin zuten eraikuntza berria bertan jantokia, ikasle eskola eta beste zerbitzu batzuk jartzeko. Lur azpian bonbardeketen aurkako babesleku bat ere egin zuten. Bestalde, eraikuntza bera arkitekturari dagokionez, Euskal Herriko arkitektura arrazionalista estilotzat jo izan dute. Beste gauza batzuen artean, ekoizpen mailan ere aitzindari izan zen lantegia: Espainian "widia" deitutako metale gogorra ekoizten lehenak izan ziren.

Kultura eta gizartea

Arlo kulturalen lantegian egin zituen lanak izan dira, gehienbat, jendearen oroimenean geratu direnak, eta batez ere, mekanikarien

eskola. 1941. urtean sortu zuten, eta 200 lagun inguruk ikasi zuten bertan. Mekanika ikasteaz gain, gimnasia klaseak izan ohi zituzten, eta liburutegia lantegian bertan, "alegia, hezkuntza kulturalaz, zibikoaz eta erlijiosoaz arduratzen ziren", adierazi digu informazio hau guztia eskura eman digun Truchuelok, "dena den hori guztia ulertzeko beste garaia batzuk zirela hartu behar da kontuan, eta enpresari askok zeukatela kutsu paternalista samarra". Urteak aurrera egin ahala gatazka eta aldarrikapen sozialek hartu-eman horiek nahikoa aldatu zituzten.

San Martin jaiak ziren lantegiko ohorezko jaiak, hala ere andoaindar guztiei irekita zeuden, eta antolatzen zituzten kontzertuetan, dantza saioetan, lehiaketetan eta kirol saioetan jende askok hartzen zuten parte. Lantegiak bere txistulari taldea, dantzari taldea eta abesbatza zituen. Labher abesbatzak herritik kanpo lehiaketak ere irabazi zituen.



La Salle-Berrozperen 50. urteurrena

Mende erdian zehar bertan izan diren ikasle, irakasle eta gurasoen bilgune

Urriaren 16ean hasi eta hurrengo urteko maiatza bitartean ikastetxeak ia astero eskainiko die andoaindar guztiei era guztietako ekintzak ospakizuna dela eta: hitzaldiak, musika, erakusketak, kirola...

Ekitaldiek ikastetxeak bildu dituen hainbat eta hainbat ikasle, irakasle eta gurasoen bilgune izateaz gain, eskualdeko enpresarietako hurbilketa bidea ere izan nahi dute. Hurrengo maiatzean Ama Kandidaren beatifikazioak bat egingo du ospakizunekin.

1945ko urriaren 15ean ireki ziren eskolako ateak dozena bat ikaslerekin. Urte haietan Laborde enpresaren laguntza teknikoa ezinbestekoa izan zen, bertakoak izan baitziren La Salleko lehenengo irakasleak. Bestalde eta aitzindari bezala, ikastetxeko zuzendaria den Felix Ezamak Juan Legarra Etxebeste amasarrak 1735. urtean egin zuen "Pobreen seminarioa" eta Ama Kandida andoaindarrak sortutako eskolak aipatu ditu.

1.200 ikasle dauzka gaur egun ikastetxeak hiru alorretan banatuta: mekanika; elektrizitatea, elektronika eta automatismoa; eta administrazioa eta arlo komertziala. "Urteetan inguruko enpresa-gizon askoren ezaugarri profesionalak eta kulturak landu ditugu" gogoratu du Ezamak, "eta bertan ikasitako batzuk ere buruzagi politikoak bilakatu dira". Ikastetxearen historia, hezkuntza mailan izandako bilakaera eta esperientzia profesionalak bilduko ditu Xabier Lasa ikasle ohiak liburu batean.

"Cementos Rezolak" momentuz auzia galdu du

Epaileek arrazoia eman diote Udalari eta "Cementos Rezola" enpresak orain dela lau urte aurkeztutako Udalaren erabakiaren aurkako errekurtsioa gaitzetsi egin du. Udal berriaren eskuetan dago une honetan Buruntza mendian enpresa egiten ari den indusketa lanen aurka neurriak hartzea edo ez.

1991. urtean "Cementos Rezolak" Buruntzako harrobia zabaltzeko proposamena egin zuen. Udalak inongo lizentziarik gabe lan egiten ari zirela jakitean auzitara eraman zituen. Enpresak beti argudiatu du lanean daraman denbora luzea jarduna justifikatzeko. Bere esanetan 1935eko da beren lehenengo errentapena, 1965. urtera arte iraun zuena. Gaur egun berriz, 45 urtez lan egiteko eskubidea ematen dion beste errentapen bat omen dauka. Epaileek ordea ez dituzte argudio horiek kontuan hartu eta errekurtsioaren aurka agertu dira.

Hala ere, epaileek hartutako erabakiaren aurka "Cementos Rezola" enpresak beste errekurtsio bat aurkeztu du Auzitegi Gorenean. Bestalde, Udalak era horretako lanen jarduna zehatz-mehatz mugatzen eta kontrolatzen duen arautegia onartu berri du Arau Subsidiarioetan.



Antolaketan jende ugari

Egitaraua

Urriak 16: Hasierako ekitaldia

HITZALDIAK

Urriak 17: "Lanbide heziketa berria, eta lanbide eskolak" hitzaldia.

Urriak 18: "Giza baliabideen garapena enpresetan eta gizartearen" mahaingurua.

Urriak 19: "Etorkizuneko lanbide eskola marginazioaren munduan" hitzaldia eta panel erakusketa.

Urriak 20: "La Salle-Berrozperen historia eta inguruan izan duen eragina".

Urriak 22: "Instituzioaren eguna": meza, lehenengo ikasleei omenaldia eta bazkaria.

Urriak 27: Donostiako orfeoiaeren kontzertua.

Azaroak 5: Olentzerori buruzko "Kixmi" erakusketa.

"La Salle" mendi ibilbidea herriko txokoak ezagutzeko

Azaroak 11: Kirol astea.

Abenduak 22: Eguberriko kontzertua.

96ko urtarrila: Argazki lehiaketa eta erakusketa.

Otsaila: Eskola arteko olinpiadak.

Martxoak 8: Ikastetxearen historiari buruzko argazki erakusketa.

HITZALDIAK

Apirilak 4: Nazioarteko gazteen topaketak.

Maiatzak 6: "Hezkuntza lanpostuetan" hitzaldia.

Maiatzak 7: "Hezkuntzaren kalitatea eta hobekuntza".

Maiatzak 8: Easo Txikiren kontzertua.

"Euskararen garapena hezkuntza mailan"

Maiatzak 9: "Eskualdearen enpresa etorkizuna". Enpresen topaketak.


Maiatzak 11: "La Salle-Berrozpe" familiaren jaia.



Badatoz Santa Mañak!!

Bitoriano Aizpurua: "Dantza ugari egindakoa naiz ermitaren inguruan"

Uztailaren hemezortzia da Santa Marina eguna, baina hilaren hamabostean hasiko dira jaiak. Igandea eta asteartea, hilak hemezortzi, izango dira egunik garrantzitsuenak herri kirolak, bazkari herrikoia, bertsolariak eta trikitilariak izango baitira. Aspaldikoa da jai hauen ospakizuna eta orduko jaiak bizi izan zituen Bitoriano Aizpurua esan digunez, dantzan eta kantuan ospatzen zuten eguna ermitaren gerizpean, gorputzak iraun bitartean.



Herri kirolak, Santa Mañetako berezitasuna

Goi bailarako mendi tontorrean dago Santa Marinako ermita eta bertako jaiak dira uztailekoak. Horren inguruan ospatzen ziren garai batean jaiak eta gaur egun ere gauza bera egiten jarraitzen dute. Bitoriano esan digunez, gerra aurretik ere ibiltzen ziren festan eta ermitan meza entzun ondoren, hamaiketako egin eta tuntunaren soinuz lagundurik igarotzen zuten goiza. Eguna ospatzeaz gain hurrengo igandean ere jai giroan ibiltzen omen ziren, eta egun bertan, bazkari herrikoia eta kupela bete ardo egoten inguratzen zen edonorentzat. Bailarako mutil gazteek jartzen zuten jaiak egiteko dirua, arratsaldeko soinujoleak eta gau parteko ekitaldiak antolatzeke. Bitoriano esanetan,

hamaikak aldera etxera erretiratzen ziren, "etxeruntz behinik behin", baina egunean zehar kantu eta kontu ugari izan ondoren.

"Edozein tema buruan zutela asmatzen zituzten apostuak, ardoaren berotasunak eraginda edo", gaineratu digu Bitoriano orduko apostu grina, eta dioenez, orduko amorrua azaltzeko. Gaur egun ez da horrelako konturik eta festa egunak luzatzeaz gain, jai eguna ere ez da ermitan soilik ospatzen. Kalejira bat egiten da inguruko baserrietatik eta bakoitzak jateko eta edateko hamaika gauza eskaintzen ditu. Bailarako gazteek antolatzen dituzte orain ere jaiak baina Udalaren dirulaguntzaz. Bitoriano eta batzordeko partaideek esan digutenez, orain dela gutxi arte baserri baserri jasotzen zuten jaiak egiteko behar zuten dirua.

Egungo jaiak; aspaldikoen ispilu


Aurten ospatuko diren festak aspaldikoen antzekoak dira. Larunbatean zikiroa janez hasiko dira jaiak eta igandean, mezak eta ospe handiko herri kirolarien ekitaldiak eman go diote jarraipena. Baina egunik garrantzitsuenak asteartea, hemezortzi, izango da; herri bazkaria, auzokoaren arteko herri kirolak, bertsolariak eta trikitilariak izango dira. Egun hori bertakoentzat da gehienbat, eta Bitoriano esanetan, "bailarako ospakizun hau bertakoon artean eta lagunartean igarotzen dugu". Beraz, jai giroan ibiltzeko egun aproposa da Santa Marina eguna eta hurrengo egunean burukomunik izanez gero, ermita bertan dagoen zulotxoan burua sartu eta kredo erreztatu ondoren, amesgaiztoak uxatzen omen dira.


SANTA MARINAKO JAIAK

EKITALDI UGARI PRESTATU DITUGU

- HERRI MEZAK
- HERRI KIROLAK
- TRIKITILARIAK ETA BERTSOLARIAK

"ONGI ETORRI ETA JAIK ONGI IGARO"





Aurtengo konpartsa: antzinako ezkontza

Berrehun lagun inguruk hartuko dute parte

Berrehun lagun inguru bilduko dira aurtengo jaietan Santa Ana egunean, hain zuzen ere, Oinkari dantza taldeak aurkeztuko duen konpartsan. Euskal Herrian antzinan nekazal inguruko ezteiak nola ospatzen zituzten emango dute ezagutzera. Konpartsa egiten duten laugarren urtea da honako hau, eta urtetik urtera deiari erantzun dion herritar kopuru gero eta handiagoak antolaketa lanak dexente zaildu baditu ere, konpartsak herritarren artean orain arte izan duen harrera onak bultzatzen ditu jarraituzera.



Azken egunetan gogoz ari dira entsaioak egiten

Bertso eta ipuin lehiaketako irabazleak



Hona hemen Udalak antolatutako bertso eta ipuin lehiaketan sarituak izan diren herriko haur eta gaztetxoak: ipuinen arloan eta erdi-ziklo mailan Eneko Ugartemendia izan da irabazlea, eta Egoitz Bengoetxeak eta Eder Uzku-dunek jarraituko diote. Goi-zikloan berriz, hauek izan dira hiru sarituak: Maite Narbaiza, Jaione Aizpun eta Edurne Arrizurieta. Bertsoan erdi-zikloari dagokionez, Ander Etxeberria, Ekaitz Zumarraga eta Eneko Bergara izan dira irabazleak. Goi-zikloan berriz, Oihane Olariaga, Aloña Arruti eta Alazne Gurrutxaga.

Antolatzaileek adierazi dutenez, aurtengo lehiaketan ikasle ugari hartu dute parte.

Egun osoko ikuskizuna izango da, eta konpartsa berak atal ezberdinak izango ditu: lehenengo senargaiarekin laguneren arteko montxorra ospatuko dute afari, herri-jolas, apostu eta guzti; andregaiak ondoren bere lagunei arrioa erakutsiko die; andregaiaren eztei jantziak jartzeko uneak jarraituko dio; ezkontza bera ospatuko dute gero, eta erromeria, azkenik. Bixente Iguaran antolatzaileetako batek esan digunez Kresala dantza taldearen eszenografiari oinarrituta dago, hein handian, ikuskizuna.

Egun seinalatu horretan ere eztei musika berezia entzungo da herriko kaleetan. Horretarako Zuberoako, Lapurdiko eta Baztaneko kanta herrikoiak bildu dituzte. Eta, jakina, ezkongaiari eskainitako koplak bereziak ere izango dira.

Jantzi bereziak eta beste gainerako osagaiei esker-gardia, arrioa, akerra, zintak, txintzarriak... nekazal inguruko mende hasierako ezkontzak nola ospatzen zituzten ezagutuko dute herritarrek.

"Jaietan herritarren partaidetza bultzatu nahian bururatu zitzaigun konpartsa egitea", esan digu Bixentek. Horrez gain, ordea, Oinkari dantza taldea berpiztea lortu dute, eta gainera "konpartsa dela eta ez dela, herriko gazte gehienek fandangoa eta ariñ-ariña dantza egiten ikasi dute, behintzat", gaineratu dute Oinkarikoek.

Zorionak txapeldunei

Jubeniletako lehen mailan izango dira datorren urtean

Jubenilen bigarren mailan urteak igaro ondoren lehen mailara igoro dira billabonarak lehen postua eskuratuz, gainera.

Jose Alvarez entrenatzaileak adierazi duenez garaipena futbol taldearena ezezik, Billabona Kirol Elkarte osoarena ere izan da. Gaur egun 90 neska-mutil inguruk jokatzen dute, eta futbolearen aritza baino zerbait gehiago nahi omen dute elkartekideek, hau da gaztetxoak ongi pasatzea dute helburu.






Zizurkil

Abeletxe aterpe berritzailea martxan da

Ekintzak garatzeko eta lasaitasunaz gozatzeko gunea

Ekainaren hamabostean ireki zituen Abeletxek bere ateak naturaz gozatu nahi duten lagun taldeentzat zein bakarrik datozenentzat, aterpeak, lagunartean egiteko ekintza ugari eta lasai-lasai ibiltzeko baliabideak eskaintzen baititu. Bertako zuzendari den Juanjorekin hitz egin dugu eta bere esanetan "antolatu ditugun ekimenen arrakastak eta etortzen den jendearen nahiak" zehaztuko dute aterpearen dinamika.



Abeletxe berrituta

Zizurkil goiko Abeletxe baserria erabat berritu dute inguruneak eskaintzen dituen aukera ezberdinez gozatzeko. Hiru solairuko aterpea da eta lehenengoan jantokia, egongela eta terraza daude berrogeita hamar lagunentzat egokituta. Bigarren solairuan berriz, zazpi gela daude bakoitza bere komunarekin, bakarrik edota familiarekin etortzeko. "Egun lasaiak igarotzea datozenentzat egin ditugu gela horiek", esan digu Juanjok eta beraz, aterpe arrunt batek eskaintzen ez dituen aukerak ditu Abeletxek. Azkenik, hirugarren solairuan hogeita hamar lagunentzako literak daude taldean datozenentzat.

Ikastaroak eta mendi irteerak

Uztailaren hogeita zazpian, Aiztondo bailara ezagutzeko mendi irteera antolatu dute eta ildo berean jarraitzeko asmoa dute. "Hona etortzen den jendeari ingurunea ezagutzeko aukera luzatu nahi diogu eta era berean, kirol ekintza ezberdinak antolatuko ditugu", esan digu

Juanjok aterpe berritzaile honen berezitasunetaz hitz egin. Ikastaro ezberdinak ere antolatuko dituzte: mendiko orientazioa, parapentea, eskalada e.a. Ekimen horiek ez dituzte Zizurkilen soilik garatuko, Gipuzkoako mendi eta inguruneak ezagutzeko irteerak ere antolatu baitituzte. Bestalde, eskolako haurrei bideratutako ekintzak egingo dituzte astean zehar. "Haurrak mendian gozatzeko eta ondo pasatzeko ekintzak egingo ditugu", adierazi digu Juanjok ikastetxeei zuzendutako ekimen horiez galdetzean.

Uztailaren hogeita seiko astebukaeran berrogei haur joango dira Abeletxera eta udan zehar jende gehiago joango zaielakoan ikastaro eta irteera ugari antolatu dituzte.



MENDI
AUTOESKOLA

AGUSTIN DE LEITZA, 11 - ☎ 300604
20140 ANDOAIN

||
**ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK**
||

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURITASUNA !!

KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 **20140 ANDOAIN**

Litzauna

KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN

**AURRERA
TABERNA**

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL

Alkate berriekin solasean

Joxean Perez Gabarain

“Egitarauari dagokionez bat etorri gara hiru alderdiak, baina batzorde banaketa arazo handiak eragiten ari da”



51 urte

Enpresa antolaketa teknikaria

Zaletasunak: atletismoa, futbola, mendia

1979-83 bitartean Alkate izan zen. Udal Kirol Patronatoko lehendakari ordea ere izan da. Alderdikideen hika-mikak baztertu eta garai berri baten ateetan egon gaitezkeelakoan dago. Gobernabilitatea eta kontsentsua jotzen ditu aurrera egiteko funtsezko arautzat. Udalaren egoera ekonomikoa kezagarria iruditzen zaio. Dena den, arlo ekonomikoari baino, alde politikoari ematen dio garrantzi handiagoa, egoera azkenengo boladan latzagoa bilakatu baita.

egin dugu, hiru aste baino ez dira falta gobernua osatzeko, eta oraindik ez da akordiorik lortu. Gure ideia Hirigintza, Enplegua eta Pertsonal batzordeak guretzat izatea da; Kultura, Euskara eta Hazienda EAJ-PNVrentzat; eta Ongizatea EArentzat. Gainera batzordeburuek alkateak adina funtzio izango dituzte. Ados jartzen ez bagara, EArekin bakarrik gobernatzeko prest gaude eta gehiengoa lortzeko IU-EB eta PPrekin akordio jakinetara iristeko.

- Ze batzorde berri eratu duzue?

- “Enplegua, Ekonomia eta Garapena, eta Gaztedia batzordea” deituko da. Gaztediaren enplegu beharri erantzuteko Udalak eskaini dezakeen laguntza bideratu nahi du gazteen beraien partaidetzaz.

- Ez zara orain arte alderdien arteko ulertezinak baino pertsonen artekoak nagusitu direla esan duen bakarra.

- Halaxe da, eta konpondu ezin badugu, gure gainetik dauden ordezkariengana jo behako dugu. Bestalde, alderdi guzti-guztiekin iruditzen zait iritsi gaitezkeela akordio jakinetara.

- Zein da Udalaren egoera ekonomikoa?

- Gaur egun Udala ez da ez enpresa errentagarria, ezta bideragarria ere. Aurrekontuaren %50a Udal langileen gastuetarako da, %25a eskatutako kredituei erantzuteko eta gainerakoarekin gauza handirik ezin da egin, gastu finko batzuk daudelako: musika eskola, zabarren egoitza, haurtzaindegia... Beraz, gure asmoa eraikitzen hasia da, horrek handituko ditu diru-sarrerak: etxebizitzak, lur industrialak... Dena den argi esan behar zaie herritarrei lau urtetan ezingo dela gauza handirik egin. Kiroldegiauren bigarren fasea edo Basterosko etxea bezalako proiektuak bideratzen saiatuko gara, hala ere. Taldeek jasoko duten dirulaguntzei dagokionez ez dakit asko edo gutxi izango den baina gebiango kontrolatu beharko da.

- Garrantzi handia eman diozue lur industrialari eta etxebizitzari.

- Enpresa batzuekin harremanetan jarriak gara: “Campezok” aipatu du herrira etortzeko aukera eta baita 140 lanpostu sor ditzakeen enpresa alemaniar batek. Baina momentuz aurreproiektuak baino ez dira. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren esku dago dagoeneko Algodonerako lur saila babes ofizialeko 120 etxebizitza egiteko, eta Txitibar eta Sorabilla inguruko lurretan ere aurrikusita daude eraikuntzak. Baina prozesua geldoa izango da.

- Zerbait esango zenieke herritarrei?

- Pazientzia eskatuko nieke. Ziur nago hamazazpi zinegotziek lan egiten badugu herritarrek lau urteren buruan aldaketak ikusiko dituztela. ■

- Ze iritzi duzu alkate kargu-bartzea eguneko gertaeretz?

- Aldez aurretik iskanbilak egon zitezkeela pentsatzen genuen, baina gebiegi jasan genuela iruditzen zait. Horiek ez dira jarrera demokratikoak, guztiz intoleranteak baizik. Ekitaldia jende aurrekoa izan zedin nahi genuen, eta horregatik eutsi genion.

- Nola hartu duzue EAJ-PNV-ren abstentzioa?

- Talde birukoitzak herriaren aurrean batasuna agertu behar zuela iruditzen zait, kontsentsuaz eta gobernabilitateaz hitz egiten ari bagara, behintzat. EArengandik bereizteko egin dutela iruditzen zait. Hala ere, ez zaigu batere serioa iruditzen.

- Batzorde banaketa zailtasunak sortzen ari da?

- Bai, egitarauari dagokionez berehala jarri ginen ados. Baina batzordeen banaketari buruz luze hitz

Juanjo Aranburu Duran, Zizurkilgo Alkatea

“Talde hirukoitzari begira baino, herriari begira egingo dugu lan”

“Etorkizun berbera helburutzat hartuz lan egingo dugula ikusi nahi du herriak”

Azkenengo lau urteetan Hazienda batzordeburua izan ondoren, EAJ-PNV alderdiko Juanjo Aranburuk alkatetza eskuratu du Udal hauteskundeetan EA eta PSE-EErekin bat eginda. Elkarketaren ondorioz boto gehien jaso duen HBk gobernutik kanpo geratzea erabaki du, nahiz eta batzordeetan lan egingo duen. Juanjoren ustez herri txikia da Zizurkil, alderdi guztiek omen dakite zeintzuk diren gai eta arazo nagusienak, eta batzuen eta besteen egitarauen artean ez omen dago, gainera, ezberdintasun handirik. Alkate berriaren ustez zinegotzi guztiek herriaren onura helburu dutela elkarrekin lan egiten ikusi nahi dituzte herritarrek.

- Alkate kargu hartu zuen egunean Udalean gertatu zenaz zer pentsatzen duzu?

- Normala da HB alkatetza galdu ondoren haserre egotea. Hala ere, ez zait balako enfrentamendua sortzea egoki iruditzen. HB ORTrekin (Organización Revolucionaria de Trabajadores), elkartzuz behin alkatetza kendu zigula gogoratu behar da. Horrekin zera esan nahi dut, alderdiak elkaritza zilegi dela, jarraia demokratikoa da. Bestalde, bauteskunde kanpainan argi azaldu genuen horrela jokatu genuela. Hala ere, gu guztiekin hitz egiteko prest gaude.

- Herritarren batzuek zure aurkako orri batzuk atera zituen?

- Bai, nire erruagatik nire lantokian sekulako zorrak zeudela, eta etorkizunean lanpostuak eta dirua galduko zirela zioen orri bat kaleratu zuten baten batzuek enpresa komitearen izenean. Argitu genuen lantegian auzia eta ez ziren beratiek izan. Egia esan, ez dakit nortzuk izan ziren eta ez dut jakin nahi. Alde bateko zein besteko nire lagunak, hala ere, nire alde jarri ziren.

- Zergatik egin duzue EA eta PSE-EErekin bat?


- Lehenengo eta behin argi utzi nahi dut talde hirukoitzari baino, herriari berari ematen diogula garrantzi handiagoa. Talde guztiek egin behar dute lan. Bestalde, HB eta gure artean zinegotzi baten alde baina ez dago. Ezberdin izango litzateke 6-2ren alde edo egongo balitz. Guk ez dugu HB gobernutik baztertu, beraiek nahi izan dute kanpo egotea. Hala ere, erabaki jakinetan akordioak lortzea espero dugu. Beraiek alkatetzan zeudenean guregandik jaso zuten erantzun berbera jasotzea espero dugu.

- Nola banatuko dituzte batzordeak?

- Hauteskunde aurretik hitz egin genuen horri buruz: Hirigintza, Ongizate eta Pertsonal batzordeak gureak izango dira: ni izango naiz hirigintza batzordeburu, M. Angeles Lazkano Ongizatekoa eta baserritarren batzordekoa, eta J. R. Gabarain Pertsonalekoa. Kultura EAren eskuetan geratuko da Joze Larranagarekin. Kirola PSE-EEko Eusebio Baidiloren eskuetan. Baserritarren batzordea daukagu oraindik erabaki gabe.

- Nola moldatuko zarete egitarauarekin?

- Ez dago baten eta bestearen ar-



43 urte

Adunako "Montajes Electricos Etxabe" lantegiko administraria.

Zaletasunak: argazkigintza, irakurtzea, musika, maketak, mendia.

tean borrenbeste ezberdintasunik. Hala ere, orokorrean guk ezarriko dugu aurrera eraman nahi dugun egitaraua, baina ez dugu inor baztertu nahi, eta besteen ideiak ongi etorriak izango dira. Hauek dira bultzatu nahi ditugun ideiarik nagusienak: habes ofizialeko etxebizitzak eta aisialdirako eta kiroletarako gunea. Baina horrezaz gain herritarrekin harreman zuzenagoa lortu nahi dugu, beren eskariei abalik eta azkarren erantzunez.

- Zein da Udalaren egoera ekonomikoa?

- Udalaren egoera ekonomikoa ez da txarra. Azkenengo denboraldian inbertsio handiak egin ditugu eta aurrerantzean ia ez dugu batere egingo. Egindako zorra kitatzen jarraitu nahi dugu. Eta batez ere tesoreria arazoak konpondu. Dena den, horiek HB alkatetzan zegoen garaian hartutako neurriak izan ziren. Helburua zorra jaistea da inbertsioa abaztu gabe.


- Herritarrek noiz aurkitu abal izango zaituzte udal-txean?

- Astean behin egun osoz egingo naiz, eta baita arratsaldeetan ere.. Baina, hala ere, goizero Maria Angeles Lazkano egongo da.

Asteasuko ganadu feria-erakusketa

Xabier Pellejero: "Asteasun oso kalitate oneko ganadua dago"

Hilaren bian, Santa Isabel egunean, Ibargaineko belzean egin zen seigarren urtez ganadu feria-erakusketa. Aurten, gainera, oso eguraldi aproposa zutela. Herriko hamasei baserritarrek hartu zuten parte, eta inguruko bizilagun ugari bildu ziren, besteak beste, aldi berean Euskadiko sokatira txapelketa zegoela aprobetxatuz. Behi pintoak ikusi ziren gehienbat ferian. Urtetik urtera ganaduaren kalitatea gora egiten ari dela ere ikusi ahal izan zuten bertaratu zirenek.



Eguraldia eta giroa ezin hobek

Hamasei baserritarrek hartu zuten parte Udalak antolatutako feria-erakusketan. 50 behi pintoek eta haragitarako 35 behiek gain, ardiak, larreko txerri pinto bat bere txerrikumeekin, eta beste abere batzuk ere izan ziren. Baserritar bakoitzak 10 buru edo abere-multzo aurkezteko aukera dauka eta 1.000 duro jaso ohi du bakoitzeko.

San Pedro jaietan baserritarrek ere beren eguna izan behar zutela eta, era horretan hasi ziren feria-erakusketa antolatzen. Aurreneko bi urteetan salmentarako feria antolatu zuten, baina berehala konturatu ziren salmentak egiteko ez zela egun aproposa, baserritarrak erostera baino begiratzera joaten baitziren. Bestalde, lehiaketarik antolatzea ere ez zitzairen egoki iruditu, baserritar batzuek atzera egin zezaketela pentsatuz.

Feria-erakusketak berriz, herriko eta inguruko baserritarren artean jakinmina piztu ohi du. Aldameneko ikuiluan zer dagoen ezagutu eta bere azientarekin alderatu nahi izaten du baserritarrak. Horrez gain, egunak berak baserritarrek elkarren berri izan eta hartu-emanak estutzeko bali izaten du.

Kalitateko ganadua

"Oso ganadu ona dago Asteasun", esan digu Xabier Pellejero albaitariak, antolaketa lanetako partaideak. Horretan, hain zuzen ere, izan du feria-erakusketak alderik handiena: gaur egun baserritarrek erakusten duten ganadu ia gehientsuena kalitate beretsukoa da, oso kalitate onekoa, eta gainera, urtetik urtera kalitatearen gorakada nabaria izan da Pellejeroren esanetan.

Abelburu bat edo beste berez ona izateaz gain, hobekuntza genetikoak,

zalantzarik gabe, zerikusi handia dauka gai horretan. Izan ere urtetik urtera etxeko ganadurik onena aukeratuz belaunaldi hobek lortzen saiatzen dira baserritarrak. Asteasuko ferian ez dute ganaduaren maila neurtzen, hala ere bi ezaugarrien arabera neurtzen dira ferietan abelburuak: abelburuaren beraren morfologia edo ezaugarriak, batetik: errapeak, hankak, gorputza, esnea emateko gaitasuna...; eta produkzioa eta produkzioaren kalitatea, bestetik.

Gipuzkoa osoan zehar izaten dira beste feria batzuk: Aiakoa, Santa Lutzitakoa, Elgetakoa eta abar. Asteasuarrak, gainera, horrelakoetan parte hartu eta zenbait sari ere irabazi izan dituzte. Dena den, Asteasukoa era honetako feria-erakusketa bakarrenetakoa izango dela esan digu Xabier Pellejerok.



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

ALFARO

J A T E T X E A

EGUNEROKO MENUA

Larramendi kalea z/g
59 40 27 ANDOAIN

VII. "Rikardo Arregi" Kazetaritza Sariak

Euskal kazetaritzan urte osoan egin diren lanik onenak saritu dituzte

Euskal kazetaritza egunez egun lanean dabil gizarte honetan bere txokoa topatu nahian. Interes guneak arakatu, euskaldunoi inguruko eta urruneko gertaerak freskotasunaz eta euskara bizian ekarri asmoz. Rikardo Arregi izan zen euskal kazetaritzan aitzindari, ez bakarria noski. Berak eman zion hasiera erronkari eta ondorengoek, ildo beretik lan fina egin dutela ez dago dudarik.



Saridunak

Zazpi urtez, Rikardo Arregi sariei esker, Andoaingo Udalak euskarazko kazetaritza lanik onenak saritu ditu. Rikardo Arregik egindako lanaren jarraipena da nolabait sari honen bitartez lortu nahi dena. Euskal kazetaritzaren onespina eta lanaren jarduerari bultzada ematea, hain zuzen ere.

Aurtengo sarituak

Aurreko urteetan bezalaxe, epaimahaiak "Sekzioa", "Baloraziozko Kazetaritza" eta "Erreportaia" atalen jarraipena egin du. Hilabete luzez aritu da urte osoan zehar euskarazko aldizkarietan eta egunkarietan argitaraturiko lanen edukia aztertzen. "Herri aldizkariak" atalean, berriz, egileak berak erabakitzen du lehiaketan parte hartu ala ez. Hogeita hemeretzi lan aurkeztu dituzte herri aldizkarietako kazetariak.

"Herrietako aldizkariak" ataleko irabazlea Jone Larrañaga andoaindarra izan da, "Colours United of Beterri" erreportaia saritu dute. Aiurri aldizkarian idatzi zuen orain dela urtebete. "Sekzioa" ataleko saria Euskaldunon Egunkarian argitaratu zen "Munduaren Talaian" lanak jaso du, nazioarteko gaietan eguneroko informazio freskoa eskaintzeko gaitasun bikaina adierazi duen lana. Egileak Koldo Aldabe eta Jone Larrañaga izan

dira. "Baloraziozko kazetaritza atalean saritutako artikulua "Barraren erdian" izan da Anjel Lertxundi idazleak idatzia. "Erreportaia" ataleko saria, Alberto Barandiaranen "Quosque tandem" lanak jaso du. Epaimahaikideak, Jose Antonio Perez Gabarain Andoaingo Alkatea, Gaizka Aranguren, Nerea Azurmandi eta Hasier Etxeberria kazetariak, eta Pello Iturrioz Andoaingo Udaleko euskara zerbitzuko arduraduna izan dira.

Gaizka Aranguren kazetariak ezin izan zuen sarien banaketan parte hartzerik izan, intsumisioa arrazoi, kartzelan baitago. Sari banaketan egoteko eskakizuna egin zioten kartzelako arduradunari baina baimena ezeztatu zuen eta Andoaingo Alkateak, eskerrak eman nahi izan dizkio nahiz bertan ez egon, egin duen lanagatik.

AIURRIren izenean ere eskerrak eman nahi dizkiogu epaimahaiari, guretzat ohore handia baita urte osoko kazetaritza lan onenen artean geurea egotea.

MAPFRE
ASEGURUAK

ZURE
AURREZKIENTZAKO
MAPFRE
SUPERKONTUA

ERRETENTZIORIK
GABE

Xabin Mujika Tolaretxipi
Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
Faxa 30-00-85
ANDOAIN

**LANBIDE EZBERDINEN
ARTEKO KOORDINAKETAK**

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA

ZENTROA

ESPEZIALITATEA:
ARRAI ERREAK
EUSKAL SUKALDARITZA HERRIKOIA

Aldez aurretik deituta
JANARI MEXIKANO

EGUNEROKO BAZKARIAK
Ostegun arratsaldean itxita, bazkariak eman ostean.

☎ 69 04 47
ZIZURKIL

**JATETXEA
TABERNA**

Jone Larrañaga: zorionak

Aiurrik jaso du Rikardo Arregi
Kazetaritza Saria

“Luxenburgon nago” izan dira bere lehen hitzak. Oporraldieta-
tik tartetxo bat eskaini digu
Jonek eta gusto handiz hitz egin
du gurekin, “pertsonaia
ospetsuak bezala telefonoz”
esan diogunean farreari eutsi
ezinik. Bere aurpegia ikusteko
aukera izan ez badugu ere, soinu
kantaria, pozik dagoenaren
ahotsa entzun ahal izan dugu
telefono hariaren beste aldean.
Pozik dago, eta ez da gutxigo-
rako Rikardo Arregi Saria jaso
baitu Aiurri argitaratutako
“Colours United of Beterri”
lanagatik. Horrezaz gain Euskal-
dunon Egunkarian Koldo ALda-
berekina egindako lanagatik ere
jaso du beste sari bat.

**Aiurri: Jone, zorionak. Zer
moduz jaso duzu berria?**

J.L. Jone Larrañaga: Ondo baino
hobeto. Hasieran sinesteko abalgin
handiak egin behar izan ditut. Ba-
dakizu, horrelakoak ez dira oso
maiz gertatzen, are gebiago, asko-
tan ez dira gertatu ere egiten eta ni-
retzat Rikardo Arregi Saria jasotzea
ohore handia da.

**A: Zer garrantzi du zuretzat
sariak.**

J.L.: Garrantzi handia. Izen han-
diko saria da Euskal Herrian, horre-
lako besterik ez dago, eta gainera,
Aiurri gertatu da. Sari honek bul-
tzada handia ematen dio aldizka-

riari. Gainera nire herrian izan da
eta Rikardo Arregi Saria, gainera.

**A: “Colours United of Beterri”,
nolaz bururatu zitzaizun.**


J.L.: Konturatu nintzen Andoi-
nen atzerritar asko zegoela eta Aiur-
rikoak uda partean bildu ginen
batean, udan fresko-fresko irakur-
tzeko zerbait polita egin zitekeela
esan nuen. Beraz, lanean jarri nin-
tzen alde batetik bestera atzerrita-
rrak topatzen. Beterri osoko atzerrita-
rrak jasotzeko asmoa nuen baina
Andoainen bakarrik topatu nituen.
Baiezkoa eman zidaten Mesta iran-
darrak, Nabila morokoarrak, Rolan-
do kubatarrak, Mauro italiarrak eta
Roger zelandarrak. Bakoitzaren
gora-beherei buruz aritu ginen eta
horien frutua da “Colours United of
Beterri”.

**A: Kazetaria zara, baita idaz-
lea ere. Sari honek idazlearen
nortasuna sendotzen al du.**

J.L.: Bai, nolabait egiten duzun
lanaren onespina da. Orain arte
Egunkarian egin dudana lana na-
hiko inpersonala da, nazioarte sai-
lak ez duelako joku gehiegirik ema-
ten eta Aiurriekin kreatiboa izate-
ko aukera duzu. Erreportai honetan
asko jarri nuen eta nahiko borobil
gelditu zitzaidan.

**A: Idazle jaio edo egunero ari-
tuz egiten da idazle?**

J.L.: Gogoratzen dut O.H.Oko 4.
mailan nengoela andereño Maria



Oporretara joateko bezperan
jaso zuen albistea

Jesusek galdetu zigula zer izan nahi
genuen handitan. Nik idazle izan
nahi nuela erantzun nion. Ez dakit
garai baietan idazle zer zen bane-
kien, baina beno. Ez dakit literatu-
rarako sena hori dudana, baina ni
kazetaria bokazioz naiz txiki-txiki-
tatik. Betidanik izan dut argi zer
izan nahi dudana.

**A: Herri aldizkarien garran-
tzia?**

J.L.: Handia. Batez ere egunka-
rien izaera inpersonarekin haust-
ten duelako. Zerbait idatzi ostean
jendea etortzen zaizu galderak egi-
ten eta gertukoak izatea oso garran-
tzitsua da.

Gezurra dirudi hain urruti da-
goenik, hementxe dagoela dirudi.
Oporrei buruz aritu gara hizketan eta
egun gutxi barru berriz ere gurekin
egongo dela esan digu Jonek. “Las-
ter egongo gaitun elkarrekin”. Bitar-
tean ondo pasa, eta zorionak.

**Orumendi
Kirolak**

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

LIBURUDENDA



LIBURU AUKERA
EDERRA PRESTATU
DUGU ZURETZAT


Agustin de Leiza 27 ANDOAIN % 59 16 03

NOR DA PERTSONAIA EZKUTUA?



Bostgarren lehiaketa honetan lana pixka bat zailtzen saiatu gara. Zuhur begiraiezue aurpegi xeblebre honen aurpegiera nabarienei, eta laster osatuko duzue benetakoa begitartea, gure pertsonaia ezkutua asmatuz.

Billabonako Truchuelo argazki dendak eskaini digu sari polita: edonon eta edozein egoeratan zaudela, musika entzun dezazun **walkman paregabea**. Anima zaitezte eta bidalguzue lehenbailehen eran-tzuna. Aurki egingo dugu zozketa.



SULADE TXOKOAN



JON URIONAGENA
Asteasuko sukaldaritzaren ikastaroko irakaslea

GALEPERRAK

Osagaiak:

- 12 galeper
- 4 tipulin
- 3 azenario
- 3 porru
- Kopa bat brandi
- 3 txokolate zati
- Litro t'erdi salda
- Gatza eta piperrautsa

- 1- Lapiko batean olio pixka bat berotu. Jarraian galeperrak bertan jarri eta gatzez eta piperrautsez igurtzi. Beratu ondoren atera.
- 2- Aurretik txikitutako barazkiak gehitu, eta zukua atera eta beratu ondoren galeperrak lapikoan beste behin jarri brandiarekin batera.
- 3- Azkenik, salda eta txokolatea gehitu eta 20 minutuz sutan eduki.
- 4- Galeperrak erretiratu eta barazkiak turmixean pasatu.



Nagusia, 8 - Telf - Fax 69 12 30
BILLABONA

"25. URTEMUGA." PREZIO BEREZIAK

- Karrete bat erosiaz ondartzarako baloi bat oparitzen dugu
- Karrete bat errebelatzeagatik, argazki album bat edo giltzari bat oparitzen dugu



ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK



Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxa 30 03 45
ANDOAIN



-Erreformak oro har
-Neurrira egindako armairuak
Agaraitz auzoa, z/g - ☎ eta Faxa 69 26 75
BILLABONA

Asteasu: "Herria haserre Repsol-Butanorekin" artikuluari Repsol-Butanok egindako zehaztapenak

Joan den apirilean argitaratu zen artikulu horri aipamena eginez, egokia iruditzen zaigu zenbait zehaztapen egitea, izan ere, gure iritziz erantzukizuna behar ez bezala egotzi baitzaigu.

Hala nola, horretarako Udalak laga zigun lur sailean kokatutako gas zisternaren kasua. Ez dirudi bidezkoa denik bizilagunen kezuen ondoren, erantzukizuna guri egozte, biltegiak birkokatzen sortutako gastuak Repsol-Butanoren kontu ez izateak adierazten duen bezala.

Obrak aurrera poliki doazela zabalduko iritziari buruz, zangak ixteko Industria Ordezkaritzaren bai-

mena lortu beharra daukagula jakinarazi nahi dugu, eta horretarako aurretik banaketa-sareak ikuskatzen dituela. Zenbait kasutan egon da desfaserik zangak irekitzeko eta horiek ixteko baimenaren artean.

Beraz, honelako instalkuntzei berez dagozkien eragozpen nabariez gain, gure ustez ezin zaio askoz gehiago leporatu Repsol-Butanori, honen nahiago luke gasifikazioa azkarago burutzea, baina indarrean dagoen legediak ezarritako epeetara mugatu beharra dauka. Biltegiatzearen eta banaketa-sareen ikuskapena, baimenak eta abar Lurralde Erakunde Aginpidearen eskumena dira.

Edonola ere, epe laburrera Udalerri honetako biztanle kopuru handi baten etxebizitzetan gasa prest egongo delako uste osoa daukagu.

Ramon Lasa

Repsol-Butanoko ordezkaria

MERKATU TXIKIA

Ganbara bat salgai Tolosako alde zaharrean. Berritua beharra dago

Telf. 42 05 36



Zabala

Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI



HERCULES

Aseguruak ARGENTARIA

Amaia Kortajarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

ZIZURKIL

fotocolor


ERREBELATUA ORDU LAN

Ezkontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak.
Lan Industrialak



Jose Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN

Juan Bautista ORMAZABAL



PINTURA LANAK ORO HAR

Profesionalak gara

Agenda

IBILALDIAK

ADUNA, ASTEASU, ZIZURKIL

Uztailak 27: Lekeitio-Ondarru ibilaldia 55 urtetik gorakoentzat. ☎ 69 39 30.

ANDOAIN

Uztailak 22.-23: Pantikosara mendi irteera.

MUSIKA

ANDOAIN

Uztailak 22: "La Porteña jazz band" Goikoplazan.

ERAKUSKETAK

BILLABONA

Uztailak 21-31: Iñaki eta Patxi Epelderen pintura erakusketa.

ANTZERKIA

ASTEASU

Uztailak 14: Zizurkilgo antzerki taldearen saioa 22.30etan.

LEHIAKETAK

ASTEASU, ADUNA

Uztailak 31a arte: Argazki lehiaketa.

ZINEMA

GUREA ZINEMA
BILLABONA

"Solo ellas"
"Bubn Hombre
Africa"

SANTIOAK BILLABONAN

Uztailak 24:

12.00etan: Eskuzko pilota partiduak haur eta gazteentzat.

16.00etan: XVIII. xake lehiaketa.

17.00etan: Dantzari txikien saioa.

20.30etan: Afari herrikoia.

23.00etan: Danborrada.

Uztailak 25:

9.30etan: Kross herrikoia haurrentzat.

12.00etan: Meza nagusia.

17.00etan: Soka-dantza.

22.00etan: XXXI. txistu kontzertua.

24.00etan: Dantzaldia Arkaitz taldearekin.

Uztailak 26:

11.30etan: Errebote partidua.

18.00etan: Konpartsa.

23.00: Dantzaldia Gozategi taldearekin.

Uztailak 27:

Goiz eta arratsalde **haurrentzako jolasak.**

16.00etan: Haurrentzat II. duatloia.

22.00etan: Rock kontzertua.

Uztailak 28:

14.00etan: Jubilatuen bazkaria.

14.30etan: Koadrilen bazkaria.

23.00etan: Dantzaldia Gau-bela taldearekin.

Uztailak 29:

17.00etan: Koadrila arteko I. Oriaren jaisiera.

18.00etan: Makailo lehiaketa eta sagardo dastaketa.

Goizalderarte: Dantzaldia Urrats taldearekin.

KARRIKAKO JAIK ANDOAINEN

Uztailak 14: Almen taldearekin dantzaldia.

Uztailak 15: Koadrilen arteko duatloia, haur jolasak, haur danborrada, gau-pasa Belea Band taldearekin.

Uztailak 16: Argazki erakusketa ludotekan, "Play-Back" lehiaketa, dantzaldia Erriberako talde batek alaituz.

Uztailak 30:

11.30etan: Billabona-Zizurkil pilota partiduak.

19.00etan: "Txarlotada" Hika taldearekin.

22.00etan: Lizaso, Egaña, Sorozabal eta Peñagarikano **bertsolariak.** Zeberio gaitzaile.

Uztailak 31:

11.00etan: Hasperen-Billabona errebote partidua.

OHARRA:

Santio jaietan **buruhandi bezala atera nahi dutenei** jakinarazten zaie datorren **uztailaren 19an 12ak baino lehen** eman beharko dutela izena.

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA

Uztailak 25: Preso, errefuxiatu eta deportatuen aldeko zuhaitz-landaketa.

Uztailak 29: Afari herrikoia Ohiko aldizkaria kaleratuko dute.

SANTA MARINA JAIK

ASTEASUN

Uztailak 15:

Zikiro afaria, erromeria, eta batzuri zopa eta oilasko jana.

Uztailak 16:

10.00etan: Andazarratera igoera.

Meza nagusia eta herri kirolak.

Lizaso eta Murua bertsolariak eta Laja eta Landakanda trikitalariak.

18.00etan: Segalariak: Etxetxo, Bengoetxea eta Aranalde.

Gauean: Laja eta Landakanda.

Uztailak 18:

Bailarako edadekoentzat hamaiketako, herri kirolak, Zeberio eta Mañukorta bertsolariak eta Laja eta Landakanda trikitalariak.



ONDO PASA SANTIO JAIAK

AMAIUR

KALE NAGUSIA, 24 ☎ 69 16 11
BILLABONA

- ✓ OPARIAK
- ✓ LURRINDEGI
- ✓ JANTZIAK
- ✓ BITXITEGIA
- ✓ OSAGAIAK

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
BILLABONAR
GUZTIEI

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE...

EUSKALDUNA
EDARITEGIA



Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47 BILLABONA



UBANE

EDARITEGIA - JATETXEA

ONDO PASA
JAI EGUNAK

ETXE - ONDO, 6-7 TEL. 693442 BILLABONA

ALUSTIZA baserria
☎ 943 - 690361 20150 AMASA

NEKAZALTURISMOA
JATETXEA

**ONDO IGARO
JAIAK**



Labesaitu
nkindegia

**ETXekoentzat
APARTEKO
OGIA!!**

Kale Nagusia, 19 - Tel. 69 17 11 - BILLABONA

075A39

ETXEBIZITZEN
SALEROSKETA

Kale berria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA

BEIBATEGI


J A T E T X E A

Bulandegi bidea z/g 69 21 78 ZIZURKIL




- Eguneroko menua edo kartara
- Jaunartzeak
- Bataioak

Berezitasuna
Entsalada epela



BILLABONAKO UDALAK



FESTA GIRO ON
BAT OPA DIZUE